

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*165/2013 FORU AGINDUA, otsailaren 12koa, hainbat zerga arautan jasotako zenbatekoak pezetatik eurora aldatu eta aldaketa horri buruzko arauak ematen dituen azaroaren 27ko 1.202/2001 Foru Agindua aldatzekoa.*

Azaroaren 27ko 1202/2001 Foru Aginduak eurora aldatu zituen hainbat zerga arautan jasota zeuden zenbatekoak, eta arauak ere eman zituen aldaketa horrekin lotuta.

Xedapen horren bitartez, eta aldaketa hori jasota uzte aldera, Gipuzkoako zerga araudian zenbatekoak pezetatan adierazten zituzten prezeptu guztietan, zenbateko horiek eurotan adierazita utzi ziren, betiere euroa sartzeari buruzko abenduaren 17ko 46/1998 Legeak ezarritako bihurketa erregelei jarraiki.

Foru agindu horren edukian akats bat aurkitu da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testuategina onartzen duen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen paragrafo bat transkribatzeko eran. Akatsa II. eranskineko 3. erregelaren 2. apartatuko 3. paragrafoan dago, eta zuzendu behar da haren edukia behar bezala interpreta dadin.

Hori dela-eta, hau

XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra.*

Aldaketak sartzen dira Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testuategina onartzen duen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen II. eranskineko 3. erregelaren 2. apartatuko hirugarren paragrafoan. Paragrafo hori azaroaren 27ko 1202/2001 Foru Aginduan transkribatu zen, hainbat zerga arautan jasotako zenbatekoak pezetatik eurora aldatu eta aldaketa horri buruzko arauak emateari buruzkoan —eranskinean—, eta honela geratzen da idatzita:

«Abereak batez ere ustialekutik kanpoko bazka eta pentsuekin elikatzen direla ulertuko da belar ondu, lasto, silo edo pentsuen kontsumo osoaren %50 baino gehiago, kilogramotan adierazia, hirugarrenei erositakoa denean».

## AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2013ko otsailaren 12a.—Helena Franco Ibarzabal, Departamentuko foru diputatua.

(1608)

(1638)

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*ORDEN FORAL 165/2013, de 12 de febrero, por la que se modifica la Orden Foral 1.202/2001, de 27 de noviembre, por la que se convierten en euros los importes en pesetas de diversas normas tributarias forales y se dictan normas relacionadas con dicha conversión.*

Mediante la Orden Foral 1.202/2001, de 27 de noviembre, se convirtieron en euros los importes en pesetas de diversas normas tributarias forales y se dictaron normas relacionadas con dicha conversión.

A través de dicha disposición, y al objeto de reflejar dicha conversión, se transcribieron los contenidos de aquellos preceptos de la normativa tributaria guipuzcoana que contenían importes en pesetas, denominándolos en euros de acuerdo con la reglas de conversión fijadas por la Ley 46/1998, de 17 de diciembre, sobre introducción del euro.

En el contenido de la citada orden foral se ha detectado un error en la transcripción del contenido del párrafo tercero del apartado 2 de la regla 3.ª del anexo II del Decreto Foral Normativo 1/1993, de 20 de abril, por el que se aprueba el texto Refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas, que a efectos de su correcta interpretación procede subsanar.

Con tal motivo,

DISPONGO

*Artículo único.*

Se modifica el contenido del párrafo tercero del apartado 2 de la regla 3.ª del anexo II del Decreto Foral Normativo 1/1993, de 20 de abril, por el que se aprueba el texto Refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas, contenido en el anexo de la Orden Foral 1.202/2001, de 27 de noviembre, por la que se convierten en euros los importes en pesetas de diversas normas tributarias forales y se dictan normas relacionadas con dicha conversión, quedando redactado dicho párrafo en los siguientes términos:

«Se entenderá que el ganado se alimenta fundamentalmente con alimentos y piensos no procedentes de la explotación cuando la proporción de los adquiridos a terceros sea superior al 50 por 100 del consumo total de henos, pujas, silos o piensos, expresados en kilogramos».

## DISPOSICIÓN FIRNAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 12 de febrero de 2013.—La diputada foral del Departamento, Helena Franco Ibarzabal.

(1608)

(1638)